



Prentsa-oharra

Ziklo konbinatuko instalazioak izan duen erabilera-ratioa %63,4koa izan da

Bahía de Bizkaia Electricidad enpresak Euskadiko etxebizitzetako kontsumo guztia ia bi aldiz estaltzeko energia ekoiztu du 2006an

Bahía de Bizkaia Electricidad (BBE) enpresak Euskadiko etxebizitzetako kontsumo guztia ia bi aldiz estaltzeko elektrizitatea ekoiztu du, izandako kontsumoa 2.800 GWhkoa da urtean. 2006ko ekitaldian BBE enpresak %63,4ko erabilera-ratioa izan zuen –2005ean baino %5,6 gehiago-, eta 4.353 GWh ekoiztu zituen. Era horretan, BBE Espainia osoko sistema elektrikoaren ziklo konbinatu garrantzitsuenetako bat bezala finkatua da, eta gainera, Euskadira eta Espainiako gainerako lekuetara elektrizitatea hornitzeko segurtasun-berme garrantzitsua da.

BBE potentzia instalatuko 800 MWko ziklo konbinatua da eta bere turbinetan gas naturala erreta funtzionatzen du, eta hori Bahía de Bizkaia Gas birgasifikazioko instalazioan deskargatzen da. Horrela, aipatu ekoizpen hori 2006an 1,85 milioi metro kubiko gas natural likidotu deskargatu izateari esker lortu da. Guztira 14 metano-ontzi izan dira BBE gas naturalaren kontratuak betetz Bilboko Porturaino GNL garraiatzen ibili direnak.

Lau dira Bahía de Bizkaia osatzen duten bazkideak: BP, Energiaren Euskal Erakundea (EVE), Iberdrola eta Repsol YPF, bakoitza %25%an. BBG eta BBE proiektuaren inbertsioa guztira 600 milioi euro ingurukoa da. Bahía de Bizkaia osatzen duten lau bazkideak oso ezagunak dira energia sektorean. BP munduko konpainiarik handienetakoa da energia eta kimika jardueren alorrean; EVE euskal energiaren politikaren garapenerako Eusko Jaurlaritzak duen Erakunde publikoa da; Iberdrola Espainiako konpainia elektrikoaren bi garrantzitsuenen artean dago eta Repsol YPF Espainiako lehenengo sozietatea da petrolio alorrean.

	<i>Deskargatutako metano-ontzi kop.</i>	<i>GNL milioi m³</i>	<i>Ekoizpena milioi GW/htan</i>	<i>Instalazioaren erabilera %tan.</i>
2003	4	0,37	1.865	%28,60
2004*	26*	1,77	3.745	%54,44
2005*	38**	1,74	4.119	%60,01
2006	14	1,85	4.352	%63,41

* 26 metano-ontzi horietako karga bi erabiltzaileren artean banatu zen eta 13 ontziren parekoa izango litzateke.

** 38 metano-ontzi horietako karga hiru erabiltzaileren artean banatu zen eta 13 ontziren parekoa izango litzateke.

Argibide gehiago:

José Ramón Epelde

jrepelde@eve.es

irepelde@bbe-bbg.com

Tel.: 94.435.56.00

Mugikorra: 609.41.38.37



www.bahiasdebizkaia.com

Zierbena (Bizkaia), 2007ko otsailaren 7a